

BANDOA (B27-2021)

LEGIA KARRIKAN SARBIDE MUGATUKO EREMUA EZARTZEA

Legia karrika, Altzateko sarreratik, sarbide kontrolatuko eremu gisa ezartzeko beharra antzeman da, segurtasuna bermatzeko eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko arrazoiak direla medio. Hala, oztopo-zutoin mekaniko bat jarriko da eta baimendutako ibilgailuak urrutiko kontrolaren bidez sartu ahal izango dira.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta Berako mugikortasun eta trafikoari buruzko udal Ordenantzak ezarritakoarekin bat etorriz, 2021eko irailaren 15ean Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan dagoen akordioa onartu du:

1. Legia karrika, Altzateko sarreratik, sarbide mugatuko eremu gisa ezartzea, ordenantzaren arabera baimendutako ibilgailuak soilik sartu ahal izateko.

2. Sarrera kontrolaren hasiera data ezartzea: 2021eko urriaren 4a.

Herritar guztiak jakin dezazuen argitaratzen dut.

Bera, 2021-09-22
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña